

JAIOLUR ABERATSAK ETA BEARTSUAK

Inglaterra'ko Barbara Ward, Munduko Elizen Batzarrean izan da katolikuzko bat zalarik. Upsala'n egin dute batzaldi ori ta bere itzaldia bikaitetako izan da, nazio aberatsak eta nazio pobreak gar artuta.

Asieran au adierazi du: munduko bizilagunetatik euneko egelk, mundu guziko aberastasuren euneko larogel du bere eskutan. Benetan gure baitan ziraada aundie nabal-azteko berria da auzel

Gaurko izatera su eta orain eun urtekoa alkarrekin konparatzen ditu Barbara Ward'ek. Orduan, Disraeli'k zionez, aberastez bakarrik edo beartsuz bakarrik osatutako gizarteak omen-zan. Inglaterra'n. Aldi aretan —dio Barbara Ward'ek—, Westminster'ko Dukaeren urteko errenta, lau milioi dolarrena zan, (280 milioi pezetena) ta aldi berean portuetako langille batek 25.000 pezetan jomala zuan.

Gure egunotako Inglaterra'n, beste sartaldeko errialdeetan bezela, gorabera oiek gutxiu egin dira. Agitz, aberatsak pixka bat gutxiago dira dirutan, eta beartsuak ezira len aia beartsu ere.

Emakuno izari onek au galdetzen du gero: guziak berdintzeko dagoen aude au, errialde bakoitzetik, mundu guzira ezin al-diteke zabaldu? Sartaldeko errialde bakoitzean arku diran neurriak, zergatik ez artu nazio aberatsak eta nazio pobreak elkarren pareago jartzeko? Ortarako Ward andreak Iru bide izendatzen ditu: kontribuzio edo zerga-arazoak gizarte-giro guzira eman lenbizi. Gizarteke jende xeaen eskuan erosteko diru gela-giro jarri urregio; ta guziak lan-lekua izan dezaten aplegiñak egin. Asmo suok bakoitza bere aldetik eraman bearko omen lirako.

Estaduei zerga edo kontribuzioa izendatuaz ote? Bai, baiña borondatez artuak erri aberats bakoitzean, noski. Onela jarraitzen du esanaz, erri aurreratu bakoitzak bere irabazietatik zerbat erri atzeratuak laguntzeko emango ba-lu, egundoko laguntza izango litzakea. Edo-ta armetar gatzatzen danotik euneko amar erabiliñ dezagun erri pobreei laguntzeko.

Izketaldi bikaña Ward andreaken Errialdeak esnatzeko galdera eglten digu gero: Zergatik ezira erabaki auek artzen nazioen artean? Eta onela erantzuten du: Ori guziko dakiugu. Ezta diruagatik, ez. Guzi ori beste iturri batetik dator eta au da: gure gizarte-egintzarak, orainarteko bakoitza bere nazio barruan lotzen dutela uste degulako izan da. Mugetatik kanpora orrelako zeregitiak artu bearrik ezteguia, sinistu izan degulako da guzia.

Zertan gero, beart? Bete onela bizl ber al-degu, mendl batek, nazl itxasoko, nazl edozer mugak gure egintzarak mugatzen ditualakoan? Ez al-dakigu gizadi oso elkarrekin lotua dagoena?

Barbara Ward andreaken itzaldi au «La Documentation Catholique» aldizkarian agertu da eta esan duan guzia gure buruko kutxan gordetzeko da. Ezpaldu galtzekorik ezar.

B A Z T A N

¿Zer dauka Baztan-ek gipuzkoarri orren sakonki biotza ikutzeko? Ez gipuzkoarri bakarrik. Bizkaitarrai berdin gertatuko zaiotela neri iruditzen.

Gipuzkoa geisgi bete zaigu. Antzik ere ez dauka. Bertan ez da askotan errega espirituarentzat atsedeen toki bat arkitzen.

Gipuzkoan, urte sasoi bateko gizonarentzat batez ere, igandeak etxe barruan irten gabe egoteko egunak egin zaizkigu. Udara partian beintzat, bai.

¿Nora irten dezakegu? Gure barren pakia galduko ez degun toki bat ¿nun billatu?

Basarri-k esaten ziran lengo batian. Igandetan Erre-zilgo meza nagusira joaten omen da. Berriko zaar batzuekin izketaldi bat egin eliz atarian eta gero etxera. Ez omen du gelaio irizeten.

—Goazen Baztan ulerda —esaten ziran igande goizean sui batek. Baiezterantzun nion berealaxe.

Narbarte, Donestebes, Arroyos, Oronoz, Oyeregi eta oen antzeko erri ta errixka zoragarriak gogoratu zitzaizkidan berealaxe. Baztan bidian daude. Arroyos, Baztarien bertan oso oker ez ba nabil. Beste aldeko Euskalerraren antzeko erri tsukun eta politak.

Gure aintzinaoko istori gordeleku diran etxe ta jau-regi zaarrak. Etxe aurre osoan zabaltzen dira balkoi ederrak. Zango-gorri lorez, au da, jeranioz ornituta, egoten dira geinena.

Beste batzuetan jau-regi-gaztelu zaarrak, lenengo bizitzaiek tellatua arterañoiko sasoi bateko pareta lodiak, egur beltzez osatuta ikusten ditugu.

Naparru aundiaren kondaira arrigarri gordelekuak. Etse zaar oiek itzegiten baliteke?

Abetzek igandean ari naiz igande goizez Baztan-gotoel baten jardüñan. Arbolak batek ematen dit itzal gosoa.

Ondoan, iya bertan, umeak eta gazteak pizina garbi-garbi batean ari dira igarian. Jendea ugari inguruan, pake-pakean periodikiuak irakurri edo eguzkia arizen.

Gustora ari naiz gustora ari banaiz!... Orrelako atsedenek ez det aspaldian nabaitu. ¡Auxe da puraje ederral ¡Au pakeal

Baño bat batean, jardüñeko arbolak baten atzian izkutatutako altaboz aundi bat asten da karraxika ta ujukak, nik aldakit zer musika traketekin.

Belarriak zulatu bear dikit. Orra nere pake poza bat-batean uxatuta. ¿Nora igesi? Gortu bear det. Belarriak pusa bear dikit soñu onek.

—¿Emen ere bai? — galdegiten det tristuraz.

—Eta eskerrak gañera berandu asi dala-erantzuten dit beste batek.

Jose de Arteche

Karta idikia Gaztañaga

Aldiskide, leendik ere badakizu zure «Kezak» sailleko aburuko pozik irakurtzen ditudala. Gogoangarriak dira izkuntzaren alderako dituzun ardurak. Asmoz, bat gaitzitu, ifhoiz uste berdinetik ez bagoaz gero. Ta orain karta au idaztera nakarrena au da:

ZERUKO ARGIA-ren 286-287 zenbakian, «Zenbat korrejitu bear duan idazleak...» izeneko artikularen azkenaldera Euskaltzaindiari dagozkion zenbat gauza jartzen dituzo. Baiña gauza orri buruz argitasun apur bat eman nai dizut alkargo onen idazkari bezala eta alkargo onek kontu orretan merezi duan errespetsuagatik.

«Noiz artuko ote degu danok beta, gure idazkera txukundu eta argituzko?» Esan ondorean, beste au jartzen dezu:— «Azkenik, Euskaltzaindiaren lileroko erabakiak ematen dituztenak, noiz asiko ote dira? Nola esango degu? Noiz asiko ote dira kontuan artzen serbitzuz kaxkerra egiten dituela Euskaltzaindiari... errobidia ekxaxa ematen ditela... argiadi idazten ez duten bitartean?»

Diozun lileroko erabaki emateareren zer esan nai dezu? Aldizkariaren

batek ematen dituan berriak ala agiriak ala agiriak ofiziaiki dakartzienak? Euskaltzaindiak bere lileroko biltzarreko erabakien agiriak multiko piuz argitaratzen du eta euskaltzaindiako diranen artean zabaldu. Auek ote dira gaizki idatzio? Nun dituzte utsak? Zertan? Jakin nai nuke, zeren agiri ori, idazkaria naizenez, neronek eglten bal det. Nere idazki, erdialdeko euskaltzaitara begira eglfarran (euskerak batuaeren erabaki zaatz bat ez degun artean Azkue-ran Gipuzkera osotua-ren ingurua artzen bal det ofiarri), guztiak obeto konprentitzeko orara. Euskerari buruz nere buruaeren jakinduria ez bai da aia sakona; euskerak obetu bearrean naiz eta utsak nun diran esango benzenida, baldin utsak badira, zuzenduko nitzuke.

Baiña, alpatzen dezuna, aldizkariaren bateko berri emaitzalaena bada, otoi, ez erantsi Euskaltzaindiari. Aldizkariari dagozkiona da ori, eta ez guri. Euskaltzaindiak, bere billean agiriak, ez bai du ifhoñ argitaratzen, bere «Euskeran» edo izan ezlik.

Bukaeran «Noiz jabetuko ote dira, oso gutxi goraltzen dutela euskal-alkarte nagusi ori, Euskera-euskeraz

adiskideari MENPEKERI

idazten ez duten bitartean?» diozu.

Zure zati au ez det argi ikusten. «Euskerak-euskeraz». Ez du uste, berezikuntza gabe, gure aldizkari «Euskeran» edo «Euskeran» gaitik ari zomari. Artara baliz ere, zure esan nai ori, jakin bear zenduko lingüestika itudio galak dirala eta orotariko izkuntzak erabilitez onetsia duala (nik nere aldetik, ala era, naiago nuke euskerak utsaan), Europako nukleoko tokietan oitua dan bezala. Adibidez, or, dazu Munibe, Sociedad de Ciencias Naturales «Aranzadi»-ren 1968-ko zenbakia guzia frantsez utsean argitaratzi. Eta Euskerak gure aldizkaria kondairaz dator orrela. Aldizkariaren egitekoa, azalaen bertan irakurri zenezake iru izkuntzetan.

Baiña, zure esan nai orretan aruntzago joanez, gure euskeran erdal jatorriko zenbat itz erabiltzearen bada, ezan bearrean naitzatu Altube jakintsuren izkuntz-jakintza ta euskeriaren bizitza, Ederismos eta La vida del euskerak lanetan ez-ezik, Euskeran bertan, IV-gñ. tomoan (1959) garbi azaltzen dala Euskaltzaindiak bere denboran ortaz artu zuan erabakia.

Beraz, uste det, argi dagoala, Euskaltzaindiak, lileroko berriak ematen dituzten aldizkariaren zer ikusirik ez duala. Berri emaitzila ta aldizkariari axola zalena da. Eta ez nija emen aieri buruzko abururik ematera. Emen, nere egitekoa, Euskaltzaindiaren izena irazi okerez lardaskatzen ez utzea da.

Euskal idazkera jatorra zer ez dan adierazteko, badira bide errozagoak ere. Aldizkarietan, Euskaltzaindiako lileroko berri emaitzilaen ez bai det ikusi orrelako gelegieririk, eta bai beste zenbaitzuen idazkietan. Or bertan, zure idazkariaren aldemenen etorren bat, euskal idazkera jatorra zer ez dan ongi adierazteko bezelakoa. Falete-k izenpurtirik etorren «Euskotarra ta irri gogaldiaren zentzuna» izeneko artikuloa ar dezagun euskeraz zelari idatzi bear ez danaren eredu. Zeren, ori euskerak bada, gu ez gara euskaldunak.

Gogoan izan karta onetan ez dedala izan zure kontrarako asmurik. Alkarte baten izena tokatzen zaion lekuan jartzearen egin det. Zure artikulok bizi eta jakingarriak, beti gaurkotatuz betirik ematen dituzanak, poz-positz irakurten ditut. Noizik bainean utsenbat egitea denori gertatzen zaigu, eta batez ere lanean ari geroanori. Orregatik, jakinazu, orpen auek asmurik onenarenkin. agñiak dirala.

Agur!
JUAN SAN MARTIN

Txekoslovakia'ko eraso-aldia, bazezentzat arrigarri izan da, beste-etan nai gabea sortu du ta ezinera-manekoa izan da golenontzat. Materialismo zibilizazio aldetik aia urreratuta ba-dago mundu au, zergatik aurretik sakonki estudiatuta gero, indarra nagusi dala, erri batek beste menperatzen dun, galdegin dute askok.

Gertakizun au azaltzen degun gairelan ifhoñentzat ez da ezjakifheko gauza, naiz ta edozein politikak motaz pentsatu, indarrezko arrazola nagusitu ta dalata nagusituko dala, zirikatuaz ta lasa-nagusitza bat ezarriaz, etikaren lege guziak oimpera tuz naiz ta burges edo sozialismo aldetik, etika lege oiek etorriak izan.

Ez det ifhoiz irakurri, ez da gogoratzen ere, ifhoir erboluzioi etikaren izenean, nazio batek beste menperatzea ontzan eman edo orduratu duanik, txikiaren pentsakerak, aundia arrizkuan jartzen duala aitzakitzat artuta.

Barsobia'ko alkartearen nazioak egin dutena, ontzat artu bear badegu, bide berean nazitarrak Errusia eraso zutenean, ontzat eman bear dugu ta baita ere gaur edo biar Txina'k Errusia erasotzen ba-du.

Bañan ez, giza-legeak ta arrazolabideak bedurgarriko iritzi auei, ezin lozalekete toki eman, balozkorik eman.

Bein baño geiagotan, sobietikoak gizon batek beste uziatari (explo-tatu) dunaren aurka deadar egliten nabaitu izan ditugu, ta konsigna au beolentzat itzalgarri izan da beti.

Bestalde berriz, nazio batek beste zapaltzea, nabarmen nabarmen aztu egliten dute, naiz ta gertakizun au zuzengabekeririk audienetakoa izan. Ala ta guzti ez ere, komunistak erligioaren aurka deadar egliten dute, erriaren oiploa dala esanab ta berolek erligio materialista baten ize-

nean, zuzengabekeria ezartzen dute, balaren indarra dutela arrazoi. Ez da makala, Prudhon ez Prudhon'ek Marx' i emandako erantzuna: «Jasan-ezin baten buru, ez degu izan nai, ezta erligio gogor baten apostoluak bezala ifhoñi ere, naiz ta marxismo, arrazoi bidez ta logika bidez jantziya egon.

Komunismorik ez det nai, askatasuna ukatzen dualako ta askatasunik gabe zuzendu litezkeela gauzak, ez dit buruak eriten, ez det iresten.

Estadu baten uaz-gurasotza ezin ontzat artu nezake, gizonako moralizatzea altzakitzat artuta, uziatua eta zapaltzen duan bitartean. Estadu komunista, oso begi luze izanik, zalindu, Ixpletu, zuzendu, legeak jarri, neurritatu, inguratu, ezagutara-zi, predikatu, miatu, iritzi-eman ta agindui egliten du. Bere indarra, zatezifhezkoa da ta asezgaltza bere zentralizazio, aztertzailea bere polizia, gauz oietaz gañers, pentsamentu guzila txikitzea da bere elburua, bai bakoitzarena bada bai ta askorena ere, ajolakabekeriz gezurtatua.

Leen esan dugunez Prudhon'ek idatzi zuan, eta ura ez zan burgesa ifhoño aldetik.

OLATZA

Zeruko Argia

Zuzendaria:
ANTONIO ITURRIA
ASTIAZARAN

Naparroko-Kantauriko ta Aragoko Kaputxinoak argitaratua
(Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA'n:
Oquendo, 22: Telf. 26666

ARPIDE-SARIA:
Urteko 190 Pta.
Atzerrian 285 *

Aldez artu nai bada, gaidetu.

IRITZIAK

- «Eglaren aitor egin bear da bakarrik, Kristoren aitor».
- «Bizitza oso motza da ordu bat ez azpikeriatan galfitzeko».
- «Jakin nai ba-dezu, zoaz ikustera. Liburuaz etsita egon, jarrai elburua».
- «Trebetasuna: ez nai itzatea bakarrik, elburuari jarraitzea balizk».
- «Eglazalek eta zintzoko. Garbi jokatu bear da, au da trebetasun audiena. Azpikeria aserri-arazola da, ori ala-olako gizonena da. Askok eglia eta ongia billatzen ez dabiltz, ederra dana baliz eta garalpena. Oiek galfizkile batzuku dira».
- «Nagusaren arzoa: aurrez ikusi, antolatu, aratu, begitatu».
- «Toki bat eta aldi bat gauz bakoitzarentzat eta gauz bakoitza bere aldiari eta bere tokian egin».
- «Ez ari lar arin, zugatz bezela balizk».

- Lebert'ek
- «Gogoan erabiltzen doguna esan ezin ba-dogu, gutxienez gezurrik ez degu esango».
- Praga Irratiak
- «Ekonomia sendotzeko elkarriketa bat bear egliazko elkarriketa bat eta orretarako askatasuna bear».
- Londres Irratiak
- «Datorren urtean, ZERUKO ARGIAREN berroitamargarren urte ospatuko da. Berroitamark urtek asko esan nai dute».
- Nik
- «Ala ta guzti ez ere, ba-dirudi ez dagoela zuzendu-bearrik, beñers, euskeraz idazteketan».
- Gaztañagak
- «Zenbat korrejitu bear duan idazleak».
- Artehek
- «Iritziaren tarte zabalaren zabal».
- Nik ERREXIL